

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**137/2020 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa, Vitoria-Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorrean jasotako 4. egikaritze unitatearen (Armentia) hitzarmen batzarraren desegitea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa**

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2020ko ekainaren 5eko sarrera data eman zitzaion idazkiaren bidez, Vitoria-Gasteizko Udalak helarazi zigun Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Armentia izeneko 4 zenbakiko egikaritze unitatearen Hitzarmer Batzarra desegiteko Gobernu Batzarraren erabakia, dagozkion lege ondorioetarako.

Bigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren iraiaren 12ko 64/2011 Foru Aginduaren bidez, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 4. egikaritze unitateko (Armentia) Hitzarmen Batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzea erabaki zen.

Hirugarrena. Batzar Nagusiaren 2019ko abenduaren 5eko erabaki bidez, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 4. egikaritze unitateko (Armentia) Hitzarmen Batzarra desegitea onetsi zen.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza kudeatzeko arautegia onesten duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak 30.1 artikuluan xedatzen duenez, Hirigintza erakunde laguntzaileak desegingo dira haiek sortzeko xedea betetzen denean, eta betiere eskatuko du hirigintza administrazio jardulearen erabakia.

Bigarrena. Era berean, Enrique Arana Cañedo-Argüelles Vitoria-Gasteizko notario jaunaren aurrean eraturako Hitzarmen Batzarraren estatutuen 48. artikulua, 2011ko ekainaren 1ean emandako eskrituraren arabera, honako hau ezartzen du: "Desegiteko arrazoiak. Hauek izango dira batzordea desegiteko arrazoiak:

a) Estatutu hauetan adierazitako xedeak betetzea (...)"

Hirugarrena. Kasu honetan, batzarra eratzeko arrazoi izan ziren xedeak bete izanak ekarri du hura desegitea, halaxe onetsi baitzuen Hitzarmen Batzarraren batzar orokorrak 2019ko abenduaren 5eko bilkuran, eta halaxe jasotzen baitu gobernu batzarraren 2020ko maiatzaren 29ko erabakiak.

Laugarrena- Aplikagarria da Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortu eta arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuak aurreikusitakoa.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea deusezta dadila Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 4. egikaritze unitatearen (Armentia) Hitzarmen Batzarraren inskripzioa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 1a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*